

2017ko urtarrilaren 20an 2014ko Kontratazio-zerrenden webgunean argitaratu dira Giza Baliabideen zuzendariak 1. eta 2. Lehen-tasun-mailako behin betiko zerrenda eguneratuak argitaratzea aginduz apirilaren 22an eman zuen 123/2016 Ebazpenaren kontra eta berriro ireki diren bost kategorietako 2. Lehen-tasun-mailako behin betiko zerrenda eguneratuak argitaratzea aginduz apirilaren 22an eman zuen 124/2016 Ebazpenaren kontra jarritako gorako errekurtsioak berrikusi ostean eguneratutako behin betiko zerrendak.

Era berean, Giza Baliabideen zuzendariak 3. Lehen-tasun-mailako behin betiko zerrendak argitaratzea aginduz uztailaren 18an eman zuen 213/2016 Ebazpenaren kontra aurkeztutako gorako errekurtsioak berrikusi ostean eguneratutako behin betiko zerrendak argitaratu dira, 3. Lehen-tasun-mailakoak.

Eguneratutako zerrendak informatzeko dira soilik. Horrek esan nahi du, beraz, ezingo dela erreklamaziorik edo errekurtsorik jarri haien aurka.

Eguneratutako zerrendak ikusteko: Zerrendak / Behin betiko zerrendak /Kategoria hautatzea / 1., 2. edo 3. Lehen-tasuna behin betikoa.